Hizkuntza gaitasuna. Hizkuntzalaritza formala 1.2. GAIA

Amaia Serrano Mariezkurrena

19/20 ikasturtea

Hizkuntzalaritza tradizionala

- Hizkuntzak aztertzen dituen zientzia (morfologia, sintaxia, fonetika-fonologia, etab.).
- Hasieran ikerketa filosofikoak edota filologikoak egiten ziren, hizkuntzaren iraganeko epe bati begirakoak batik bat (ikuspegi diakronikoa).

Hizkuntzalaritza modernoa (estrukturala): F. Saussure (I)

Ekarpen hauek egin zituen (XX hasiera):

1) **Bereizketa kontzeptual** bat egin zuen:
   - LENGOAIA edo mintzaira (gizakion gaitasuna):
     - HIZKUNTZA (abstrakzioa, zeinu-sistema): aldaezina
     - HIZKERA (konkrezioa, hiztunak erabiltzen duena): aldakorra
2) **Zeinu baten bi atalen** –adierazia eta adierazlea- **arteko lotura** hautsietzina azpimarratu zuen.
3) **Hizkuntza bi modutan azter** zitekeela esan zuen: sinkronikoki eta diakronikoki.
   - Berak sinkronikoki aztertu

Saussure-n proposamenari kritikak

- **Arazoa**: hizkuntza homogeneoa (beti berbera) bailitzan aztertzen zuen, estatikoki.
  - Hizkuntza ez da beti berdin erabiltzen
    - Hiztunok egindako erabilera ezberdin horiei *aldaketa librea* deitzen zien (ez ziren hizkuntzalaritzaren ikerketarako interesgarri)

Hizkuntzalaritza modernoa (formala): N. Chomsky

- Hizkuntzalaritza modernoan egindako aurrerapausorik handiena (XX. erdialdean):
  - Hizkuntza ez da imitatuz ikasten dugun gaitasuna

    ↓

  - *Hizkuntza-gaitasuna* jaio aurretik dugu (genetikoa da), gramatika unibertsal bat baitago gure gogoan
    - Ondoren, gaitasun horren erabilera pragmatikoa egiten dugu, egitura unibertsal horiek entzuten dugun hizkuntza jakin bati aplikatuz

Ikus ITZIAR LAKAren bideoa

N. Chomskyri kritika

- **Arazoa**: Hiztunak hizkuntza-gaitasuna bereganatzen du hizkuntzaren ezaugarri lexikoak eta sintaktikoak eskuratzean, baina hizkuntza bat zuzen erabiltzea ez da nahikoa egoki komunikatu ahal izateko.
  - Hizkuntza baten jabekuntzak ez du ziurtatzen haren erabilera egokia.
  - Hizkuntza bat ikasteak ez du esan nahi haren gramatika barneratu dugula bakarrik.

Hizkuntzen aldakortasuna: ariketa

1) Irakurri bakarka "Hodeiera" testua.

2) Bildu talde txikitan eta ahalegindu galdera hauei erantzun bat ematen:

- Zer azaltzen du testuak?
- Zergatik dio egileak Chomsky-ren hipotesia betetzen dela bere semearen euskaran?
- Hodeiren euskara irakasle bazina, zer egingo zenuke?
- Zure esperientziaren arabera, nola zuzendu izan zaizkizu (ahozko) hizkuntzan eginiko akatsak?

Hizkuntzen zuzentasuna: irakasteko estrategiak (I)

Child: Want other one spoon, Daddy.
Father: You mean, you want the other spoon.
Child: Yes, I want other one spoon, please Daddy.
Father: Can you say "the other spoon"?
Child: Other . . . one . . . spoon.
Father: Say "other".
Child: Other.
Father: "spoon".
Child: Spoon.
Father: "Other spoon".
Child: Other . . . spoon. Now give me other one spoon?


Braine (1971).

SARRERA


Ikuspegi orokorra
Ikerketa-lana kokatzen laguntzen du

Hauen berri ematen du:

- Ikerketa-gaia
- Gaiaren testuingurua (orain arte esan/egin dena)
- Azterketaren helburua (ekarpenak)
- Lanaren atalak



(Bakoitzarentzat paragrafo 1 edo)



'SARRERA' ATALEKO AZPI-ATALAK

Ikaskuntza metodologia aktiboak Donostiako lehen hezkuntzako ikastetxeetan

Sarrera

Sarrera honetan aurkitzen al dituzue atal horiek?

Ikaskuntza metodologia aktiboak Donostiako lehen hezkuntzako ikastetxeetan

Sarrera

Badirudi gaur egun ikas-irakaskuntza prozesuei dagokienez paradigma aldaketa bat gertatu dela edo, gutxienez, gertatzen ari dela. Ikasleak egon behar du irakaskuntza-prozesuen erdigunean, ikaslea da ezagutzak eraiki eta trebetasunak garatzen dituena, eta irakasleak gidari lanak egiteko erantzukizuna dauka. Gauzak horrela gerta daitezen irakasteko metodologia egokiak erabili behar dira eta horretarako apropostzat jotzen dira *metodologia aktibo* deritzaienak. ZER

ZERGATIK

Ikas-irakaskuntza prozesuen ikuspuntua aldatzen ari da, baina horrelako prozesuak aldatzea ez da goizetik gauera gertatu ohi. Besteak beste, egun UPV/EHUko Lehen Hezkuntzako Graduan "Lehen Hezkuntza berrikuntzako proiektuak" izeneko Minor bat dago eta Minor horretan berrikuntza proiektuak erabat lotuta daude metodologia aktiboekin. Baina, irakasle izateko formazioa UPV/EHUn amaitu berri duenaren posiziotik, "Practicuma" egiterakoan gure inguruko ikastetxeetan metodologia hauen erabilera maila askotarikoa dela ikusi dugu. Hori dela eta, lan honen bidez gure ikastetxeen errealitatera hurbildu nahi genuke egoera hori datu zehatzekin ezagutzeko. ZERTARAKO

Esku-artean dugun azterlana lau ataletan banatuta aurkeztuko dugu. Lehenik eta behin gure ikerketa-gaia kokatu eta orain arte egin diren ikerketen berri emango dugu atal teorikoan. Jarraian gure ikerketa gauzatzeko erabili dugun metodologiari buruzko xehetasunak emango ditugu. Ondoren gure ikerketan ateratako emaitzak deskribatuko ditugu. Eta azkenik gure lanean ateratako ondorioak zeintzuk izan diren azalduko dugu. ANTOLAKETA